

Curriculum.  
Haur Hezkuntza  
2. zikloa



**Nafarroako Gobernua**  
Hezkuntza Departamentua

Izenburua: Curriculuma. Haur Hezkuntza. 2. zikloa  
© Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua  
1. edizioa, 1. inprimaldia (2007)

Azala:	Asís Bastida
Fotokonposizioa:	Pretexto pretexto@cin.es
Inprimaketa:	Gráficas Lizarra
L.G.:	NA 2.356-2007
I.S.B.N.:	978-84-235-2998-8

Bultzatzailea eta banatzailea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondona  
Navas de Tolosa kalea, 21  
31002 IRUÑA  
Telefonoa: 848 427 121  
Faxa: 848 427 123  
fondo.publicaciones@cfnavarra.es  
[www.cfnavarra.es/publicaciones](http://www.cfnavarra.es/publicaciones)

## Aurkezpena

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak esparru berria ezarri du, zeinean Haur Hezkuntza nortasun berezia duen etapatzat definitzen den: jaiotzetik sei urtetarainoko haurrei kasu egiten die eta bi ziklotan antolatzen da: lehenbizikoak hiru urtetaraino hartzen du eta bigarrenak hiru urtetatik sei urtetaraino.

Bestalde, abenduaren 29ko 1630/2006 Errege Dekretuak gutxieneko irakaskuntzak ezarri ditu Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako.

Bertan ezartzen denez, Nafarroako Gobernuari dagokio errege dekretu hori Nafarroako Hezkuntza Sistemara moldatzea; horregatik onetsi da 23/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculumak ezartzen duena.

Haur Hezkuntzako bigarren ziklo honetan, haurrek beren familietan hartzen duten hezkuntza osatu behar da, arlo afektibo, psikologiko, intelektual, biologiko eta sozialetan dituzten premiak asetzeko eta bai lehen zikloan garatu dena ere, hezkuntza etapari oro har osotasun bat ematera ahaleginduz.

Foru Dekretu honetako curriculumak proposatzen du bigarren ziklo honetako haurrengan gaitasun guztiak garatzea: ezagutzakoak, mugimendukoak, oreka pertsonalekoak, gizartean txer-tatzekoak, pertsonen arteko harremanetakoak eta bai moralak eta kritikoak ere, beregaintasunez, konfiantzaz, segurtasunez jokatzeko gai izan daitezen eta hortaz beren nortasuna egoki gara dezaten.

Nafarroako curriculumaren etapa desberdinetarako ekarpen berezia da *Hizkuntzen Tratamendu Integratua*, zeinaren bidez hizkuntza arlo guztietarako metodologia komuna eta irakasleen koordinazioa proposatzen den. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak proposatzen du proiektu hau Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik hasia.

Eta, azkenik, curriculum hau eginahalean oro harkoa izateko itxuratu da eta haren edukiak, arlo desberdinetan barrena jorratzen direnak, ikasleen ingurune fisiko, kultural eta sozialarekin lotuta dago, eta horrek bere eguneroko errealitatera hurbiltzen laguntzen die.

**Luis M<sup>a</sup> Campoy Zueco**  
*Hezkuntza Kontseilaria*

## Aurkibidea

<b>23/2007 FORU DEKRETUA</b> , martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculuma ezartzen duena .....	9
<b>Haur Hezkuntzaren Arloak</b> .....	17
<b>Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala</b> .....	21
Helburuak .....	22
Edukiak .....	23
Ebaluazio irizpideak .....	24
<b>Ingurua ezagutzea</b> .....	27
Helburuak .....	28
Edukiak .....	29
Ebaluazio irizpideak .....	30
<b>Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena</b> .....	33
Helburuak .....	35
Edukiak .....	36
Ebaluazio irizpideak .....	40

## **23/2007 FORU DEKRETUA, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculuma ezartzen duena.**

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 6.2 artikuluan ezartzen du Gobernuak finkatu behar dituela Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen ekainaren 3ko 8/1995 Lege Organikoko lehen xedapen gehigarriko 2 ataleko c) letrak aipatzen dituen gutxieneko irakaskuntzak.

Horregatik, argitaratua denez abenduaren 29ko 1630/2006 Errege Dekretua, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituena, eta kontuan hartuz Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 47. artikulua eta abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretua, irakaskuntza ez-unibertsitarioen arloko eginkizun eta zerbitzuak Estatuko Administrazioetik Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatzea onetsi zuena, Gobernuari dagokio bere eskumenen esparruko lurralderako curriculuma ezartzea.

Haurtzaroa gizakiaren garapenerako erabakigarrienak diren eboluzio aurrerapenak izaten diren bizitzaren aroa da. Beraz, foru dekretu honetan ezartzen dira, haurrentzat, kalitatezko hezkuntza-ingurune batean eta ingurumen atsegina batean beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko beharrezkoak diren neurriak, aukera-berdintasunaren eta familiekiko lankidetzaren esparruan.

Irakaskuntza ez-unibertsitarioko hezkuntza etapetako curriculumak ezartzen dituzten foru dekretuak prestatzerakoan, ikasleen prestakuntza eta hezkuntza garapenera koherentzia eta jarraitasuna ematen dioten hezkuntza-printzipioak hartu dira oinarri, eta ez dira banakaturik hartu behar baizik eta bere osotasunean. Hauek dira oinarri horiek:

- Hezkuntza-prozesuak ekintza eta sorkuntza bultzatu behar ditu, ikasleek ohiko informazio iturriak, teknologia berriak eta eskolako liburutegiko gainerako baliabideak erabiliz beregana ditzaten modu autonomoan ikasteko trebetasunak.
- Hizkuntz gaitasunak etapetako arlo guztietan bereganatzea.

- Eskolako liburutegia euskarri mota guztiak antolaturik dituen baliabide zentroa da, curriculumeko arlo guztietako ikasketan lagungarria eta irakurtzea bultzatuko duena.
- Curriculumeko hizkuntz irakaskuntzen koordinazioa, hizkuntzen tratamendu integratua-ren bitartez.
- Nafarroaren hizkuntz berezitasuna, etapetako hizkuntz eredu desberdinen arabera.
- Nafarroaren aniztasun geografiko, historiko eta kulturalaren ezagutza, desberdintasune-kiko begirunea eta ondare natural eta artistikoa aintzat hartzea.
- Ikasleen aniztasuna kontuan hartuko duen kalitatezko hezkuntza, premia desberdinei erantzuten diena eta zailtasunak sumatu eta aztertu bezain laster konponbidean jarriko dituen.
- Honako hezkuntza-balio hauen sustapena: norberaren ezagutza, autoestimua, emozioen kontrola, iraunkortasuna, erroreetatik ikasteko eta arriskatzeko gaitasuna.
- Sormen, konfiantza, erantzukizun eta zentzu kritikoz banaka nahiz taldean prestatutako proiektuak imajinatu, abian jarri, burutu eta ebaluatzeko gaitasunaren garapena.
- Hezkuntza-etapen arteko koordinazioa, ikasleen ikasketaren kohesioa bermatzeko etapa-ren helburuei eta oinarrizko gaitasunei dagokienez.
- Ebaluazioa, bai barnekoa eta bai kanpoko, puntu sendoak eta hobetu beharreko arloak detektatzeko.
- Baliabide naturalen erabilera zentzuzkoa, ingurumenaren gaineko ardura, norberaren eta taldearen osasunaren babesa, kontsumo neurritzak eta zirkulazio arauak men egitea.
- Bizikidetasuna eta elkarrenganako errespetuan oinarria duten balio eta praktika demo-kratikoen bidez gatazkak konpontzea.
- Indarkeriaren aurkako jarreraren garapena, genero berdintasunaren sustapena eta eskola-esparru guztietatik kultura desberdinetara hurbiltzea eta haiek aintzat hartzea.
- Ikastetxeen eta familien arteko elkarlana, batez ere, arrazoi bat edo beste dela, premiarik handiena dutenekin.
- Hezkuntza-komunitateko kideen arteko giro baikor eta elkarlanekoa.
- Irakasleen errekonozimendu soziala, haien lanaren aintzatespena eta autoritatearen babe-sa ikasgelan eta ikastetxean egunero lanean dihardutenean.

Foru dekretu honetan Haur Hezkuntzako bigarren zikloko curriculumak ezartzen da, non sartuak baitira helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak. Curriculum hori ikastetxe bakoitzak garatu eta osatuko du bere autonomiaz baliatuz.

Edukiak hiru arlotan banatzen dira: Norbera ezagutzea eta norberaren autonomia; Inguru-menaren ezagupena eta Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena. Hala ere, arlo baten edukietako askok beste bien ikuspegitik dute zentzua, guztiak oso lotuak baitaude.

Edukiak bloketan biltzeak helburu hau du: modu koherentean aurkeztea.

Arlo bakoitzaren helburuak esaten denean, honako hau adierazten da: etapan zehar hezkuntzaren bitartez ikasleek garatu behar dituzten gaitasunak. Erreferentzia garrantzitsua da irakasleentzat, planak egitean eta ikasgelako jarduna ebaluatzean erabiltzeko.

Ebaluazioaren xedea da ikasitakoa hauteman eta lortutako garapena baloratzea. Beraz, prestakuntza bera du helburu nagusi. Oinarri hauek abiapuntu harturik, hezkuntza gidatzeko erreferentziatzat hartzen dira ebaluazio irizpideak.

Etapan honetan, beste edozeinetan baino gehiago, garapena eta ikastea prozesu dinamikoak dira, ingurunearekiko elkarrekintzaren ondorioz gertatzen direnak. Gainera, haur bakoitzak bere erritmoa du, eta bere heldutasun estilo berezia; beraz, ikaskuntza-irakaskuntza prozesua haren ezaugarri pertsonaletara, premietara, interesetara, kognizio estilora, etab. etara egokitu behar da. Haur hezkuntzan beharrezkoa da, gainera, familiek parte hartzea beren seme-alaben hezkuntza-prozesuan.

Hori horrela, Hezkuntza Kontseilariak hala proposaturik, Nafarroako Eskola Kontseiluak aurrez irizpena eman duelarik, eta Nafarroako Gobernuak martxoaren 19an izandako bilkuran hartutako erabakiarekin bat.

## **DEKRETATU DUT:**

### **1. artikulua.** *Aplikazio esparrua*

Foru dekretu honek ezartzen duen Haur Hezkuntzaren bigarren zikloko curriculumak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko, ikastetxe pribatu eta ikastetxe pribatu itundu guztietan izanen du indarra.

### **2. artikulua.** *Printzipio orokorrak*

1. Haur Hezkuntza sei urte bitarteko haurrei berariaz erantzuteko hezkuntza-etapa da.
2. Etapa hau bi ziklotan antolatzen da: lehenbizikoa hiru urte bitarteko haurrentzat da, eta bigarrena, hirutik sei urte bitartekoentzat.
3. Haur Hezkuntza borondatezkoa da. Haur Hezkuntzaren bigarren zikloa dohainik da.

### **3. artikulua.** *Haur Hezkuntzaren helburuak*

1. Haur Hezkuntzaren xedea da haurrei garapen fisiko, afektibo, sozial eta intelektuala lortzen laguntzea.

2. Bi zikloetan arian-arian arreta emanen zaio garapen afektiboari, mugimenduari eta gorputz kontroleko ohiturei, komunikazio eta hizkuntza arloko adierazpenei, bizikidetasun eta harreman sozialeko jokabide oinarritzoei, eta halaber ingurumenaren ezaugarri fisiko eta sozialen ezaugarriak hautemateari. Gainera, lagundu egingen zaie haurrei beren irudi baikor eta orekatua lantzen eta beren adinerako egokia den autonomia pertsonal egokia lortzen.

#### **4. artikulua.** *Haur Hezkuntzaren xedeak*

Haurrek honako helburu hauek lor ditzaten balioko du Haur Hezkuntzak:

- a) Beren eta besteen gorputza eta ekintzarako ahalmenak ezagutzea eta desberdintasunak errespetatzen ikastea.
- b) Beren ingurune familiar, natural eta soziala behatu eta aktiboki aztertzea eta hor Nafarroaren ezaugarri berezietako batzuez ohartzea.
- c) Pixkanaka-pixkanaka autonomia lortzea bere ohiko jardueretan.
- d) Bere gaitasun afektiboak garatzea.
- e) Besteekin harremanetan sartzeko eta pixkanaka bizikidetasun eta harreman sozialeko jokabideak bereganatzea, hala nola gatazkei konponbide baketsuak aurkitzen ohitzea.
- f) Komunikazioko trebetasunak garatzea hizkuntza, adierazpide eta irudikapenerako bide desberdinetan.
- g) Abilezia logiko-matematikoen, irakur-idazketaren eta mugimendu, keinu eta erritmoaren hastapenak bereganatzea.

#### **5. artikulua.** *Arloak*

1. Haur Hezkuntzaren bigarren zikloaren hezkuntza-edukiak haurren esperientziaren eta garapenaren esparru berekietan antolatzen dira.
2. Bi zikloetako lan metodoak esperientzietan, jardueretan eta jolasean oinarrituko dira, eta afektu eta konfiantza giroan aplikatuko dira, haurren autoestimua eta integrazio soziala indartzeko.
3. Honako hauek dira Haur Hezkuntzaren bigarren zikloaren arloak:
  - Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala.
  - Ingurunea ezagutzea.
  - Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena.

Arlo hauek jarduera-esparrutzat hartu behar dira, era guztietako ikasbideak (jarrerak, prozedurak eta kontzeptuak) bereganatzeko eremutzat, zeinak baliagarri izanen baitira haurren garapen pertsonalerako, eta mundua interpretatzeko hurbilketarako eta bertan modu eginkorrean parte hartzeko lagungarri.

4. Foru dekretu honen eranskinean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eremuetako helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak finkatzen dira.



**6. artikulua.** *Hezkuntza-edukiak eta curriculuma*

1. Foru dekretu honetan Haur Hezkuntzaren bigarren zikloko curriculuma ezartzen da.
2. Haur Hezkuntzako bigarren zikloan atzerriko lehen hizkuntza ikasten hasiko dira ikasleak. Halaber, irakurketarako eta idazketarako lehenbiziko hurbilketa sustatuko da, hala nola zenbakien arloko abilezia oinarrizkoetako hastapen-esperientziak, informazioaren eta komunikazioaren teknologietakoak eta adierazpen ikusizko eta musikalekoak.
3. Hizkuntzak modu integratu eta koordinatuan ikasiko dira, hizkuntz gaitasuna eskuratze-ko prozesua indartzeari begira.
4. Haurtzat interesa eta esanahia izanen duten jarduera globalizatuen bidez landuko dira hezkuntzako edukiak. Ikastetxeetako eguneroko bizitzako egoerek jarduera horien ardatza osatuko dute.
5. Ikastetxeek foru dekretu honetan eta garapeneko arauetan ezartzen den curriculuma garatu eta osatuko dute. Zehaztapen horrek Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 14.2 artikulua aipatzen duen proposamen pedagogikoaren osagai izanen dira eta beren hezkuntza-proiektuan sartu behar dute.

**7. artikulua.** *Ebaluazioa*

1. Ebaluazioa formatiboa, etengabea eta guztizkoa izanen da. Ebaluazio prozesuko teknika nagusia zuzeneko behaketa sistematikoa izanen da.
2. Ebaluazioak ziklo honetan ikasleak ikasi duena eta haur bakoitzaren eboluzioaren erritmoa eta bilakaeraren ezaugarriak atzemateko balio behar du. Horretarako, ikasketa-adierazleek zehaztuko dituzte arlo bakoitzerako ezartzen diren ebaluazio irizpideak. Ikasketa-adierazleek ziklo honetarako ezartzen diren ebaluazio irizpideak zehaztuko dituzte.
3. Ebaluazioa ikasleen hezkuntza-premia berariazkoei egokituko zaie eta hezkuntza-prozesua bakoitzaren garapenari doitzeko balioko du.
4. Haur Hezkuntzako bigarren zikloan ari diren maisu-maistrek, ikasketa-prozesuez gain, beren hezkuntza-praktika ere ebaluatuko dute.

**8. artikulua.** *Ikastetxeen autonomia*

1. Hezkuntza Departamentuak ikastetxeen autonomia pedagogiko eta antolamenduzkoa bultzatuko du, eta irakasleen talde lana eta hezkuntza-praktikatik abiatuko den ikerketa lana erraztuko ditu. Gainera, irakasleek beren lanaren garrantzia sozialari dagokion tratu, aintzatespena eta begirunea jaso ditzaten ahaleginduko da.
2. Zuzendaritza taldeak hezkuntza komunitateko kideen arteko giro baikor eta elkarlanean bultzatuko du.
3. Familiek etapa honetan duten funtsezko erantzukizuna errespetatu eta bultzatzearen, ikastetxeak beraiekin elkarlanean estu arituko dira, eta beren seme-alaben hezkuntza-prozesuan parte hartzera bultzatzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dituzte.

**9. artikulua.** *Etapen koordinazioa*

Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik Lehen Hezkuntzara modu egokian pasatzeko, ikastetxeek batera jarduteko irizpideak ezarriko dituzte, eta sistematikoki joko dute koordinaziora.

**10. artikulua.** *Aniztasuna kontuan hartzea*

1. Hezkuntza lanak kontuan izan behar du ikasleen aniztasuna, eta gai izan behar du guztien garapenez eta bakoitzaren premiez arduratzeko aldi berean.
2. Hezkuntza Departamentuak haurren ikasketa-bilakaeran eragina duten ezaugarriak identifikatzeko behar diren prozedurak ezarriko ditu eta ikasleei arreta ematen dieten sektore guztiak koordinatzeko mekanismoak abian jarriko.
3. Ikastetxeek neurri egokiak hartuko dituzte hezkuntza arloko laguntza berariazkoa behar duten ikasleentzat.
4. Ikastetxeek hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei haien ezaugarrietara hobekien egokitzen den hezkuntza-erantzuna emanen diete.

**Xedapen gehigarriak****Lehenbizikoa.** *Atzerriko hizkuntzetan ematen diren irakasgaiak.*

Ziklo honetan, ikasleak, foru dekretu honen eranskinean ezarritako arloen edukien bitartez, atzerriko hizkuntza ikasten hasiko dira.

**Bigarrena.** *Nafarroako euskalkiak.*

1. Hezkuntza Departamentuak Nafarroako eskualde jakin batzuetan mintzatzen diren euskalkiak irakastea eta eskolan erabiltzea bermatuko du.
2. Hezkuntza Departamentuak ahaleginak egingen ditu irakasleek Nafarroako euskalkiak jakin ditzaten. 1. puntuari ezarritakoa bete dadin beharrezkoak diren baliabide didaktikoak prestatu eta argitaratuko ditu.

**Hirugarrena.** *Erljio irakaskuntzak.*

1. Erljio irakaskuntzak Haur Hezkuntzaren bigarren zikloan sartuko dira, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.
2. Hezkuntza Departamentuak bermatuko die ikasleen familiei beren seme-alabek erlijio irakaskuntzarik jasotzea nahi duten ala ez adierazteko aukera.
3. Hezkuntza Departamentua arduratuko da erlijioaren irakaskuntzan ikasle guztien eta beren familien eskubideak aintzat har daitezzen eta irakaskuntza hori jasotzeak ala ez jasotzeak inolako diskriminaziorako biderik eman ez dezan.

4. Erlijio katolikoaren irakaskuntzaren curriculumak eta Estatu espainiarrarekin hezkuntza arlorako Lankidetzak Hitzarmenak sinatuak dituzten gainerako konfesioen erlijioaren curriculumak elizaren hierarkiak eta erlijio bakoitzeko agintariek ezarriko dituzte, hurrenez hurren.

### **Xedapen iragankorra**

**Bakarra.** Aplikatzeko egutegia.

Ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretuaren arabera Haur Hezkuntzako antolamendu berria ezarri arte, etapa honetako irakaskuntzek Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzaren curriculumak ezartzen duen abenduaren 30eko 574/1991 Foru Dekretua izanen dute arau.

### **Xedapen indargabetzailea**

**Bakarra.** *Arau indargabetzea.*

1. Indarrik gabe gelditzen da 574/1991 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculumak ezartzen duena.
2. Indarrik gabe gelditu dira foru dekretu honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko gainerako xedapen guztiak.

### **Azken xedapenak**

**Lehenbizikoa.** *Arauen garapena.*

Baimena ematen zaio Hezkuntza kontseilariari foru dekretu honetan ezartzen dena beteaz eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

**Bigarrena.** *Indarra hartzea.*

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2007ko martxoaren 19an.

**Miguel Sanz Sesma**

*Nafarroako Gobernuako lehendakaria*

**Luis Campoy Zueco**

*Hezkuntza kontseilaria*

## Haur Hezkuntzaren Arloak

## Sarrera

Haur Hezkuntzaren helburu nagusia ikasleen garapen fisikoa, afektiboa, soziala eta intelektuala bultzatzea da, familiekin lan estuan. Hezkuntzaren etapa honetan garapen pertsonalaren eta sozialaren oinarriak finkatu eta ikasle guztientzat funtsekotzat hartzen diren gaitasunak garatzeko bidea ematen duten ikasketak barneratzen dira.

Etapa honen bigarren zikloko garrantzi berezia ematen zaie ikaskuntza jakin batzuei, alegia, ikasleek beren buruari, ahalmenei eta une bakoitzean eskura dituzten baliabideak modu autonomo samarrean erabiltzeko duten trebetasunari buruz dituzten ezagutza, balorazioa eta kontrola garatzeko balio duten horiei. Prozesu horretan garrantzitsua da ohiko jarduerak erantzukizun, autonomia eta ekimen maila egoki batez egiteko, espazioak eta materialak modu egokian erabiltzeko eta ikasgelan egiten diren lanak burutzeko trebetasunak bereganatzea. Inguruarekiko elkarreraginek, mugimenduen kontrol gero eta handiagoak, beren ahalbideez eta mugez ohartzeak eta besteengandik bereizteko prozesuak bidea emanen diete pixkanaka helduengandik independentzia lortzeko. Horrek guztiak “ni neu izaten ikastea eta egiten ikastea” ahalbidetzen die, eta autonomia eta garapen pertsonalaren oinarriak finkatzen ditu.

Autonomia eskuratzeko prozesu horretan, ahozko hizkuntzak aparteko garrantzia du, izan ere, ziklo honetan hasten baita modu sistematiko batez hizkuntzaren eskurapena, familiaren esparrua zabaldu eta ikasleen komunikaziorako gaitasunak garatzeko bidea ematen duten askotari-ko testuinguruen bidez. Baina ez dugu ahaztu behar beste hizkuntza batzuk ere badirela, adibidez, gorputzarena, artistikoa (bai plastikoa, bai musikala), ikus-entzunezkoa eta matematikoa, adierazpen ahalbideak aberasteko oinarrizkoak direnak eta komunikatzeko gaitasuna garatzeko laguntza ematen dutenak.

Era berean, trebetasun eta gaitasun indibidualen garapenak eta inguruarekiko nahiz beste pertsonakiko interakzioek pentsamendua garatzeko bidea ematen diete, pentsatzen eta ikasten irakasten diete (pentsamendu kritikoa, erabakiak hartzea, arazoak ebaztea, baliabide kognitiboak erabiltzea, eta abar), eta, gainera, geroko ikaskuntzen oinarriak finkatzen dituzte.

Ikaslearen ingurua zabaldu egiten da ziklo honetan eta, horren ondorioz, esperientzia berriei aurre egin eta orain arte ezagutzen ez zituen elementuekin eragiteko beharrean ikusten du bere burua. Harreman sozial zabalagoak eta aberatsagoak ezartzen ikasten du, aniztasunaren kontzientzia hartu eta harenganako jarrera positiboak garatzen ditu. Horrekin guztiarekin, bestee-kin harremanetan sartzen eta elkarrekin bizitzeko arauak errespetatzen ikasten da, eta laguntza ematen da gizartean bizitzeko gaitasuna garatzeko.

## Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala

Jakintza eta esperientzia arlo honek barne hartzen ditu identitatearen eta heldutasun emozionalaren mailaz mailako osaera, besteekin harreman afektiboak ezartzea eta autonomia pertsonala, bereizi ezinezko prozesu beharrezkoak diren aldetik. Arlo honetan biltzen diren edukiek zentzua hartzen dute gainerako arlokoen osagarriak diren heinean, eta proposamen didaktikoetan gauzatzekoan ekintzaren eta ikaskuntzen globaltasunetik abiatuko da.

Pertsona osatzeko prozesu horretan azpimarratzekoak dira ikasleak inguruarekin dituen harremanak, mugimenduen kontrol gero eta handiagoa, kontzientzia emozionalaren garapena, bere ahalbideez eta mugez ohartzea, besteengandik desberdintzeko prozesua eta helduengandik lortzen den independentzia gero eta handiagoa.

Identitatea Haur Hezkuntzako ikasleek ingurune fisikoarekin, naturalarekin eta, batez ere, sozialarekin eragitearen ondorioz biltzen dituen esperientzien emaitzetako bat da. Elkarreragin horrek norberaren irudi positiboa, autonomia, norberaren ahalmenei buruzko kontzientzia, segurtasuna eta autoestimua bultzatu behar ditu, eta hartatik abiatu osatzen da identitatea. Sortzen dituen sentimenduek norberaren kontzeptu egokia eratzen lagundu behar dute, horrela bere ahalbideen arabera pertzibitu eta jardun ahal izateko eta garapen osoa eta harmonikoa izateko.

Kontuan hartu behar da Haur Hezkuntzako ikasleek, beren buruaz duten irudia osatzeko, neurri handi batean, beren inguruko pertsonen irudia eta haiengan jarri duten konfiantza barnertzen dutela. Halaber, helduek ikasleen ekimenak nola hartu, errazagoa edo zailagoa izanen da umeen garapena.

Etapan honetan zehar inguruarekin dituzten esperientziek laguntza eman behar diete beren gorputza globalki eta partzialki ezagutzeko, hala nola beren pertzepzioaz eta mugimenduen ahalmenez ohartzeko, beren sententzioak identifikatu eta haiekin gozatzeko, eta gorputzaren adie-

razpen ahalbideak erabiltzeko. Beren eta besteen ezaugarri pertsonalez ohartzea funtsezkoa da beren garapenerako eta bereizkeriazko jarrerarik ez hartzeko.

Sexuaren edo, jatorri sozialaren nahiz kulturalaren aldetik desberdintasunak egotea irakasleak aniztasuna tratatzeko duen tresna da, desberdintasunak errespetatu eta onartzeko harremanak sustatuz.

Orobat, afektibitatearen garapena landuko da, umeen pertsonalitatearen funtsezko osagaia den aldetik, eta emozioen eta sentimenduen ezagutza, adierazpena eta kontrol mailakatua sustatuko.

Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala bultzatzeko, komeni da jokia lantzea, ekintza emozioekin eta pentsamenduarekin uztartu eta garapen soziala ahalbidetzen duen jarduera pribilegiatua baita.

Haur Hezkuntzan oso garrantzitsua da haztura onak hartzea osasunari, higienerari eta elikadurari dagokienez. Haztura horiei esker gorputza eta eguneroko bizitzako espazioak zaintzen eta gero eta autonomoagoak izaten ikasten dute.

Eskola, bereziki adin honetan, eremu egokia da norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala garatzeko prozesuak aberasteko. Horretarako, ikasle bakoitzaren beharretara egokitutako hezkuntzako esku-hartzea eskaini behar du ongizateko, segurtasuneko eta afektibitateko testuinguruetan.

## Helburuak

Arlo honetan, hezkuntzako esku-hartzeak ondoko gaitasun hauek garatzeko helburua izanen du:

1. Bere buruaz irudi egokia eta positiboa osatzeko gaitasuna, bestekiko harremanen eta norberaren ezaugarrien, ahalmenen eta mugen identifikazioaren bidez eta autoestimazioko eta autonomia pertsonaleko sentimenduak garatuz.
2. Bere gorputza, haren elementuak eta funtzio batzuk ezagutzeko gaitasuna, jardun eta adierazteko aukerak ezagutzekoa eta keinu eta mugimenduak gero eta zehatzago koordinatu eta kontrolatzekoa.
3. Bere sentimenduak, emozioak, beharrak edo lehentasunak identifikatzeko gaitasuna, hala nola haiek besteei azaldu eta komunikatzekoa, besteenak ere identifikatuz eta errespetatuz.
4. Eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko ohiko jarduerak eta eginkizun errazak modu autonomoan egiteko gaitasuna; horrela, autokonfiantzako sentimendua eta ekimenerako gaitasuna handitu eta bere oinarritzko beharrak asetzeko estrategiak garatuko ditu.
5. Bere jokabidea besteen beharretara eta eskakizunetara egokitzeko gaitasuna, errespetuko, laguntzako eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak garatu eta mendetasuneko nahiz nagusitasuneko jokabideak baztertzeko.
6. Segurtasunari, higienerari eta osasuna bizkortzeari buruzko hazturak eta jarrerak eskuratzeko gaitasuna, oreka eta ongizate emozionaleko eguneroko egoerak estimatu eta gozatzeko.

## Edukiak

### 1. multzoa. *Gorputza eta norberaren irudia*

- Giza gorputza. Nork bere gorputza aztertzea. Nork bere ezaugarriak pixkanaka identifikatu eta onartzea. Gorputz eskema.
- Nor bere aldaketa fisikoaz eta denbora igarotzearekin duten loturaz ohartzea. Erreferentzia espazialak norberaren gorputzarekiko.
- Zentzumenen erabilera. sentsazioak eta pertzepzioak.
- Gorputzaren oinarriko beharrak. Haien identifikazioa, azalpena, erregulazioa eta kontrola. Haien asetzeko gaitasunei buruzko konfiantza.
- Bere eta besteen sentimenduak, emozioak, bizipenak, lehentasunak eta interesak identifikatu eta azaltzea. Nork bere sentimenduak eta emozioak gero eta hobeki kontrolatzea.
- Nork bere burua, bere gaitasunak eta mugak onartu eta modu egokian eta positiboan baloratzea.
- Desberdintasunak modu positiboan baloratu eta errespetatzea, besteen identitatea eta ezaugarriak onartzea eta bereizkeriako jarrerak baztertzea.

### 2. multzoa. *Jokoa eta mugimendua*

- Jokoa gustukoa izatea. Jokoetan eta ariketa fisikoetan aritu, parte hartu eta ahalegintzeko dituen gaitasunei buruzko konfiantza.
- Jokoa aritzeko arauak ulertu eta onartzea, haien erregulazioan parte hartzea, gozatu eta besteekin harremanetan sartzeko beharrezkoa dela ohartzea.
- Postura kontrolatzea: gorputza eta mugimendua. Tonua, oreka era arnasa gero eta gehiago kontrolatzea. Gorputza gero eta hobeki kontrolatzeari lotutako atsegina.
- Bere eta besteen pertzepzioaren, mugimenduen eta adierazpenaren ahalmenak eta mugak aztertu eta baloratzea. Ahalmen berriak ikasteko ekimena.
- Orientazioari eta mugimenduen koordinazioari buruzko oinarriko ezagutza.
- Tonua eta postura egokitzea objektuaren, beste pertsonen, ekintzaren eta egoeraren ezaugarrien arabera.

### 3. multzoa. *Eguneroko jarduerak eta bizitza*

- Eguneroko jarduerak. Haien egiteko ekimena eta autonomia, gero eta handiagoak direnak. Nork bere jokabidea kontrolatzea, lanak bukatzeak sortutako atsegina eta nor bere trebetasunez ohartzea.
- Eguneroko bizitza erregulatzen duten arauak. Egitekoak burutzeko ekintzen mailaz mailako plangintza. Haien burutzeko ahalmenak eta mugak onartzea.



- Antolaketako, iraunkortasuneko, arretako, ekimeneko eta esfortzuko ohitura oinarritzkoak. Norberak eta besteek ongi egindako lanaren balorazioa eta atsegina.
- Harremanetan sartu eta lankidetzan aritzeko trebetasunak eta helduekin nahiz adin berekoekin harreman afektiboak ezartzearen aldeko jarrera.

#### 4. multzoa. *Zainketa pertsonala eta osasuna*

- Osasuna sustatu eta ikaslearen eta inguruko pertsonen ongizatea sortzen duten ekintzak eta egoerak.
- Ohitura osasungarriak izatea: gorputzaren higieena, elikadura eta atsedena. Espazioak, elementuak eta objektuak modu egokian erabiltzea. Behar dutenean laguntza eskatzea. Inguruko pertsonen laguntzeko jarrera baloratzea.
- Itxura pertsonala zaintzeari buruzko atsegina. Inguru garbiak eta txukunak izateko laguntza ematea.
- Otorduei, joan-etorriei, atsedenaldiei eta higieleari begira ezarritako arauak onartzea.
- Gorputzeko mina eta eritasuna. Arrisku faktoreak modu egokian baloratzea, ohiko egoeretan prebentzio eta segurtasun jokabideak hartzea, eritasunetan eta istripu txikietan lasaitasun eta laguntza jarrerak hartzea.
- Osasunaren alde edo aurka jokatzeko duten faktore eta praktika sozial ohikoak identifikatu eta haien balorazio kritikoa egitea.

### Ebaluazio irizpideak

#### 1. Bere gorputzaren eskema eta kontrola, bai globala, bai atalka, hobetzen ari dela erakustea eta bere gaitasunetan konfiantza eta besteekiko errespetua izatea.

Irizpide honen bitartez ondoko hauek egiaztatzen dira: tonuaren, posturaren eta orekaren garapena, arnasaren kontrola eta mugimenduen koordinazioa. Gainera, gorputzak mugitu, sentitu eta adierazteko dituen ahalbideak ebaluatzen dira. Horien guztien kontrol gero eta handiagoa lortu beharko dute egoera eta jardura desberdinetan, hala nola jokoetan eta eguneroko bizitzako hazturetan eta eginbeharretan. Gorputzaren atalak ezagutu eta izendatzeko gai izan behar dute, bai eta horiek beren eta besteen gorputzean espazialki kokatzeko ere. Zentzumenak identifikatzen ote dituzten baloratuko da, eta bakoitzaren helburuaren arabera bereizten dituzten. Halaber, zentzumen bakoitzari lotutako sententzio nagusiak azaltzeko adibide errazak emateko gaitasuna ebaluatuko da.

Irizpide honetaz baliatuko gara baita irudi pertsonal egokia eta positiboa osatzen ari den, bere baliabideak erabiltzeko gai den, bere ahalbideak eta mugak ezagutzen dituen eta ekintza berriei ekiteko konfiantzarik ote duen ebaluatzeko ere. Orobat, besteen izaera errespetatu eta onartu behar dute, inolako bereizkeriarik gabe, eta laguntzaren eta lankidetzaren aldeko jarrerak izan.

**2. Jokoetan parte hartzea, mugitzeko gaitasuna eta manipulatzeko trebetasunak agerian utziz eta sentimenduen eta emozioen adierazpena erregulatuz.**

Irizpide honen bidez joko desberdinetan aktiboki parte hartzeko ahalmena ebaluatu nahi da. Leku batetik bestera joatean, oinez nahiz lasterka ibiltzean eta jauzi egitean agertzen diren mugimendu-elementuak ere ikusiko dira, hala nola eginkizun bakoitzak behar duen manipulazio xeheko trebetasunen koordinazioa eta kontrola. Haren parte-hartzea ere baloratuko da, hala nola jokoen arauak betetzen dituen, jokoen dinamikak sortzen dituen sentimenduak eta emozioak azaldu eta kontrolatzen dituen eta lankidetzako eta elkarri laguntzeko jarrerak dituen, mendetasunekoak eta nagusitasunekoak bazter utzirik.

**3. Oinarrizko beharrak asetzeko ohiko jarduerak modu autonomoan eta aktiboan egin eta zainketa pertsonaleko, higieneko, osasuneko eta ongizateko hazturak finkatzea.**

Irizpide honekin higieneari, elikadurari, atsedenari, mugitzeari eta bizitzaren bestelako egiteko lotutako jarduerak burutzeko trebetasunak ebaluatu nahi dira. Jarduera horiek burutzeko autonomiaren eta ekimenaren maila neurtuko da, bai eta espazioak eta materialak modu egokian erabiltzeko gaitasuna. Itxura pertsonal txukuna eta inguru garbia eta estetikaren aldetik atsegina ekartzen duten jardueretan parte hartzeko eta ongizatea sortzen duen giroa sortzeko jarrera baloratuko da.

## Ingurua ezagutzea

Jakintza eta esperientzia arlo honekin haur ingurua osatzen duten testuinguru desberdinak aurkitu eta irudikatze prozesua erraztu nahi zaie ikasleei, eta bide eman testuinguru horietan gogoetazko jarrera parte-hartzaile batez integratzeko. Arlo honetako edukiek zentzua hartzen dute gainerako arlokoen osagarriak diren heinean, eta proposamen didaktikoetan gauzatzekoan ekintzaren eta ikasketen globaltasunetik abiatuko da. Adibidez, ezin da ingurua ulertu hizkuntza desberdinak erabili gabe, eta, halaber, mugimendu orientatuak egiteko beharrezkoa da nork bere gorputza eta haren kokapen espaziala ezagutzea.

Ingurua zabaldu eta aldatu egiten da ikaslea eskolan hasten denean, eta ikasleak inguruarekin dituen harremanek aukera ezin hobeak behar dute izan munduari buruzko ezagutzak handitu eta abilezia, trebetasun eta gaitasun berriak garatzeko. Hortaz, ingurua errealitate bat da; ikasleak bertan ikasi eta hari buruz ikasi behar du.

Errealitatea ezagutu eta haren funtzionamendua ulertzeko, haurrak bere inguruan dauden objektuen eta gaien jokabidea eta ezaugarriak aztertzen ditu: inguru fisikoaren elementuekin jardun eta harremanak ezartzen ditu, elementu horiek aztertu eta identifikatzen ditu, sortzen dituzten sentazioez ohartzen da, haietan dituen eraginaren ondorioei aurrea hartzen die, haien arteko berdintasunak eta desberdintasunak atzematen ditu, erkatu, ordenatu eta kuantifikatu egiten du, eta horrela manipulatzetik irudikatzerara igarotzen da, garatzen hasten ari diren abilezia logiko-matematikoen oinarria finkatuz.

Horrela, eta hezkuntzako esku-hartze egokiaren bitartez, ikasleak beren inguruko mundua ezagutzen hasten dira, beren pentsamendua egituratzen dute, denborazko sekuentziak barnerrazten dituzte, etorkizuneko ekintzak kontrolatu eta bideratzen dituzte eta gero eta autonomia handiagoa lortzen dute helduei buruz.

Natur ingurunea eta hura osatzen duten izakiak eta elementuak haurren jakin-minaren eta interesen xede nagusi bihurtzen dira laster. Naturaren elementuei buruz dituzten bizipenek eta haiei buruzko gogoetek, eskolaren laguntzarekin batera, fenomeno natural batzuk, haien ager-

penak eta ondorioak, ikustera bultzatuko dituzte ikasleak, eta, orobat, izaki bizidunak, haien artean ezartzen diren harremanak, haien ezaugarriak eta funtzio batzuk ezagutzera.

Natur ingurunearen aniztasuna eta aberastasuna estimatzea, pertsonak haren parte garelako ulertzea eta harekiko lotura afektiboa eskolan errespetuzko eta zaintzako ohiko jarrerak sustatzeko oinarriak dira.

Etapan honetan zehar Haur Hezkuntzako ikasleak gizartearen parte direla ohartzen dira. Eskolako bizitzak berarekin dakar pertsonak eta haien arteko harremanak ezagutzera eramaten duten esperientzia zabalagoak egotea, loturak eratu eta sozializazioaren oinarria diren jarrerak garatzea, adibidez konfiantza, enpatia eta atxikimendua. Harreman afektibo horien garapenean kontuan hartuko da ikasleen bizipenen, emozioen eta sentimenduen adierazpena eta komunikazioa, identitatea eratu eta bizikidetzat sustatzeko.

Pixkanaka, gure kulturaren ezaugarri batzuk ezagutzen hasiko dira. Kultur aniztasuna dela-eta, komeni da ikasleak gizartearen ohituretara hurbiltzea ikuspuntu ireki eta integratzaile batetik, horrela gizartearen dauden kultur mota eta adierazpen desberdinak ezagutzeko aukera izanen baitute eta haiekiko errespetuzko eta estimuzko jarrerak hartuko. Nafarroako kultur tradizio desberdinak daude eremu geografikoen arabera. Ikasleek beren tradizioak baliabide didaktiko gisa erabiliko dituzte, eta beste tokietako tradizioak baloratuko dituzte Nafarroako kulturaren aberastasunaren adierazle diren aldetik, hizkuntza eta kultura desberdinak modu baketsuan bizi baitira gure komunitatean.

Beraz, haur ingurua ikaslearen inguruan dagoen bizi espazioa da, guretako bakoitza ukitzen duena eta kide garen kolektiboak (familia, lagunak, eskola edo auzoa) ukitzen duena barne hartzen duena. Horrela, bizi garen ingurua osatzen duten alderdi fisikoak, naturalak, sozialak eta kulturalak atzemanen dituzte, eta beren burua Nafarroako komunitateko gizabanako gisa identifikatzen ikasiko.

Teknologia berriek inguruaren elementu gisa duten garrantzia dela-eta, beharrezkoa da ikasleek, teknologia horiek beren bizitzan duten garrantziaz oharturik, haiek ezagutu eta erabiltzen hastea.

## Helburuak

Arlo honetan, hezkuntzako esku-hartzeak ondoko gaitasun hauek garatzeko helburua izanen du:

1. Beren ingurua modu aktiboan aztertu, egoera eta gertaera esanguratsu batzuei buruzko interpretazioak egin eta horiek ezagutzeko interesa izateko gaitasuna.
2. Gero eta modu egokiagoan eta pozgarriagoan besteekin harremanetan jarri eta jokabide sozialeko arauak pixkanaka barnerratu eta beren jokabidea horietara egokitzea.
3. Beren esperientziatik hurbil dauden talde sozialak eta haien ezaugarri, kultur agerpen, balio eta bizimodu batzuk ezagutu eta haien aldeko konfiantzako, errespetuko eta estimuzko jarrerak sortzea.

4. Abilezia matematikoetan hasteko, elementuak eta bildumak funtzionalki manipulatu, haien ezaugarriak identifikatu eta haien arteko taldekatze, sailkapen, hurrenkera eta kuantifikazio harremanak ezartzekoa.
5. Natur ingurunearen oinarriko osagaiak eta haien harreman eta aldaketa batzuk ezagutu eta baloratzekoa, hura zaindu, errespetatu eta kontserbatzeko erantzukizuna hartzekoa, erreferentziatzat hartuta Nafarroako Foru Komunitateko paisaiak.

## Edukiak

### 1. multzoa. *Ingurune fisikoa: elementuak, harremanak eta neurketa*

- Ingurunean dauden objektuak eta gaiak, haien funtzioak eta eguneroko erabilerak. Ingurunea aztertzekeo interesa eta bere nahiz besteen objektuak errespetatu eta zaintzeko jarrera.
- Objektuen eta gaien ezaugarriak eta nolakotasunak atzematea. Elementuak sailkatu eta haien ezaugarriak eta mailak aztertzekeo interesa. Lehenbiziko zenbaki ordinalak testuinguru egokian erabiltzea.
- Bildumen zenbaketaren hastapenak. Kontaketa kalkulatzeko estrategia gisa erabili eta kantidad erabilerrazei buruzko zenbaki kardinalak erabiltzea.
- Zenbakien sailari buruzko hastapenak eta haiek ahoz erabiltzea kontatzeko. Zenbakiak eguneroko bizitzan duten funtzioaz ohartzea.
- Neurketa beharrezkoa duten egoerak aztertu eta identifikatzea. Neurtzeko tresnekiko interesa eta jakin-mina. Haien erabilerari buruzko hastapenak.
- Denboraren intuiziozko kalkulua eta neurketa. Eguneroko bizitzako jardueren denborazko kopurua.
- Nork bere burua eta objektuak espazioan kokatzea. Kokaleku erlatiboak. Higitze orientatuak egitea.
- Inguruko elementuetan forma planoak eta hiru dimentsiokoak identifikatzea. Oinarriko gorputz geometriko batzuk azterzea.

### 2. multzoa. *Naturara hurbiltzea*

- Izaki bizidunak eta materia bizigabea identifikatzea: eguzkia, animaliak, landareak, harriak, hodeiak edo ibaiak. Bizitzarako duten garrantzia baloratzea.
- Izaki bizidunen ezaugarri, jokabide, funtzio eta aldaketa batzuk ikustea. Bizi zikloari buruzko hastapenak: jaiotzetik heriotzara.
- Natur ingurunearekiko jakin-mina, errespetua eta zainketa, bereziki animaliei eta landareei dagokienez. Haiekin harremanak izatekeo interesa eta atsegina izan eta jarduketa negatiboak baztertzea.

- Nafarroako Foru Komunitatearen mapa eta haren paisaiak identifikatzea. Mendialdea, Erdialdea eta Erribera.
- Natur ingurunearen fenomenoak behatzea (euria, haizea, eguna, gaua...). Haien arrazoiei eta ondorioei buruzko aieruak egitea.
- Naturan jardutean atsegina izatea. Osasunerako eta ongizaterako duten garrantzia baloratzea.

### 3. multzoa. *Kultura eta gizartean bizitzea*

- Familia eta eskola kidetasuneko lehenbiziko talde sozialak diren aldetik. Haien existentziaren beharraz eta funtzionamenduaz ohartzea, eguneroko bizitzan betetzen duten zereginaren adibideak emanez. Haietan ezartzen diren harreman afektiboak baloratzea.
- Komunitatearen bizitzako premiak, eginbeharrak eta zerbitzuak aztertzea.
- Bide hezkuntza: trafikoko arauak, trafikoari buruzko lengoia ez hitzekoa, trafikoko seinaleak eta zirkulazioaren kodea nola interpretatu.
- Jokabideko jarraibide egokiak pixkanaka hartu, modu autonomoan eta elkarrizketaren bidez eguneroko bizitzako gatazkak partekatu eta konpontzea, arreta berezia emanez neskatoen eta mutikoen arteko harreman orekatuari.
- Inguruneke kultur identitatearen ezaugarri batzuk ezagutu eta kultur nahiz gizarte jardueretan parte hartzeko interesa izatea. Nafarroaren bandera, armarria eta himnoa ezagutzea. Erriberriko Nafarroako Erregeen Jauregia identifikatzea.
- Denboraren igarotzeari loturik, bizimoduan eta ohituretan gertatzen diren aldaketa batzuk identifikatzea.
- Beste kultura batzuetako haurrekin errespetuzko harreman afektiboak ezartzeko interesa eta prestasuna.

### Ebaluazio irizpideak

#### 1. Inguru hurbileko objektuak eta elementuak bereizi eta haietan eragitea. Elementuak eta bildumak berdintasun eta desberdintasun nabariaren arabera taldekatu, sailkatu eta ordenatzea, magnitude batzuk bereizi eta erkatzea eta multzoak zenbakien sailaren bitartez zenbatzea.

Irizpide honen bidez ondoko hauek baloratu nahi dira: inguruko objektuak eta gaiak identifikatzeko gaitasuna, haiek manipulazio-jardueren bidez aztertzekeo interesa eta haien ezaugarrien (forma, kolorea, tamaina, pisua...) eta jokabide fisikoaren (erori, biratu, irristatu, bote egitea...) arteko loturak ezartzeko gaitasuna.

Baloratzen da, halaber, haurrak abilezia logiko-matematiko batzuk garatzen ari diren modua, elementuen eta bildumen arteko lotura kuantitatiboak eta kualitatiboak ezartzearen ondorioz. Orobat, eguneroko bizitzako matematika problema errazak konpontzeko garatu den gaitasuna neurtuko da.

Ondoko hauek era baloratuko dira: manipulaziorako materialen bitartez zenbakizko loturak aztertzekeo interesa, oinarrizko zenbakiei buruzko magnitudeen ezagutza (adibidez, bost zenbakiak bost gauza adierazten duela, alde batera utzita zer toki hartzen duten, zein forma, tamaina nahiz bestelako ezaugarri dituzten), zenbaki kardinalak eta ordinalak ulertzekeo gaitasuna, haien erabilera batzuen ezagutza eta eguneroko bizitzako egoeretan erabiltzekeo gaitasuna. Azkenik, kontuan hartuko da espazioari buruzko oinarrizko nozien erabilera (goian, behean; barruan, kanpoan; hurbil, urrun), hala nola denborari buruzkoena (lehen, gero; goizez, arratsaldez) eta neurriari buruzkoena (pisuagoa da, luzeagoa, beteago dago).

**2. Natur ingurunearekiko interesa izan, haren osagai batzuk identifikatu eta izendatzea, elkarren mendekotasuneko lotura errazak ezarri, natura zaindu eta errespetatzeko jarrerak izan eta hura kontserbatzeko jardueretan parte hartzea, Nafarroako paisaiak erreferentziatzat hartuta.**

Irizpide honekin ondoko hauek baloratzen dira: naturaren elementuei buruzko interesa, ezagutza eta sentsibilizazio maila, bai elementu bizidunei, bai bizigabeei dagokienez; haien ezaugarri eta funtzio orokor batzuk aztertzekeo jarrera eta bizi zikloaren nozioa eta ziklo horrek dituen aldaketak ulertzekeo gaitasuna.

Halaber, ingurune fisikoaren eta sozialaren artean lotura batzuk ezartzeko, pertsonen eguneroko bizitzan eragina duten aldaketa naturalak (urtaroen aldaketa, tenperatura...), eta gizakien jarduketan ondoriozko paisaiaren aldaketak identifikatzeko gai ote diren baloratuko da. Natura zaindu eta errespetatzeko jarrerak eta hura kontserbatzeko jardueretan parte hartzekeoak izanen dituzte. Orobat, ingurunea ezagutzeko interesa, egiten dituzten oharrak eta aldaketen arrazoiei eta ondorioei buruz egiten dituzten aieruak baloratuko dira.

**3. Inguruko talde sozial garrantzitsuenak, haien antolaketaren ezaugarri batzuk eta eskaintzen diren zerbitzu komunitario nagusiak identifikatu eta ezagutzea. Haien ezaugarrien eta agerpen kulturalen adibideak eman eta haien garrantzia baloratzea.**

Irizpide honen bitartez ondokoen ezagutza maila neurtuko da: inguru hurbileko talde sozialak (familia, eskola...), horiek ematen dituzten zerbitzu komunitarioak (merkatua, osasun laguntza edo garraiobideak) eta haien zeregina gizartean.

Gizartearen beharraz ohartzten diren baloratzekeo, gizartean erakunderik ez izateak pertsonentzat izanen lituzkeen ondorio batzuk eta bizikidetzarako arauak emateak duen garrantzia azaltzea eskatuko zaie.

Halaber, inguru hurbileko taldeetan duten integrazioa eta lotura afektiboa ikusiko da, bai eta beren jokabidea haiek erregulatzen dituzten printzipioen, balioen eta arauen arabera moldatzeko gaitasuna. Ikasleek gatazka egoerak aztertu eta horiek tratatu eta konpontzekeo dituzten gaitasunei arreta berezia emanen zaie.

Inguruan dauden bestelako kulturak identifikatzen dituzten elementuak ulertzen ote dituzten eta ikaskide guztiekin afektuzko, errespetuzko eta eskuzabaltasuneko harremanak dituzten ere ebaluatuko da.

# Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena

Jakintza eta esperientzia arlo honen helburua haurren eta ingurunearen arteko harremanak hobetzea da. Komunikatu eta irudikatzeko modu desberdinak kanpoko eta barneko munduak lotzeko tresnak dira, bidea ematen baitute errealitatea irudikatu, pentsamenduak, sentimenduak eta bizipenak adierazi eta besteekin harremanetan sartzeko.

Haur Hezkuntzaren etapan, haurrak jaiotzetik osatzen ari diren esperientziak eta irudikapen moduak zabaldu eta dibertsifikatu egiten dira. Komunikazioa hezkuntzaren aldetik lantzeak berearekin dakar mezuak hartu, interpretatu eta sortzeko gaitasunak sustatzea; horrela, hobetu egiten baitira munduaren ulertze maila eta modu originalean, irudimentsuan eta kreatiboan adierazteko gaitasuna.

Aurretik esan den moduan, hiru arloak modu bateratuan eta integratuan landuko dira. Adibidez, Ingurunearen ezaguera izeneko arloko objektuen eta gaien ezagutzari ekiten zaionean, harekin batera matematika-hizkuntza landuko da, errealitateari aktiboki eta jakin-minez hurbilduz gero objektuei buruz atzematen dituzten ezaugarrien eta haien arteko loturen irudikapenei baitagokie hizkuntza hori.

Hizkuntza desberdinak erabiliz, horietako bakoitza errealitate desberdinetara nahiz errealitate bakar baten alderdi desberdinetara modurik egokienean moldatzeko modua ikasiko dute Haur Hezkuntzako ikasleek. Horrela, bidea emanen zaie hizkuntza bakoitzaren kodeak bere komunikazio asmoetara egokitzeko; ondorioz, hizkuntza horien erabilera gero eta originalagoa eta kreatiboa izanen da.

Hona hemen arlo honetan sartzen diren komunikatu eta irudikatzeko moduak: hitzezko hizkuntza, arte hizkuntza, gorputz hizkuntza, ikus-entzunezko hizkuntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien hizkuntza; azken horrek aurrekoak hartzen ditu bere barruan, nolabait ere.

Bestalde, ahozko hizkuntzak aparteko garrantzia du etapa honetan, ikasi, jokabidea erregulatu, eta bizipenak, sentimenduak, ideiak nahiz emozioak adierazteko baliabide nagusia baita. Gau-



zak hitzez adieraztea, ikasten ari direna, pentsatzen dutena eta sentitzen dutena ozenki azaltzea ezinbesteko tresna da identitate pertsonala eratu eta ikasteko, egiten eta izaten ikasteko. Ahozko hizkuntzaren bidez, elkarreragin batzuekin, gero eta konbentzionalagoak eta konplexuagoak diren erabilerak eta moduak ikasiko dituzte.

Ikasleek hizkuntzaren aldetik duten garapenak zuzeneko lotura du hizkuntza ongi erabiltzen dutenek harreman sozialen eta komunikazioaren esparruan ematen dien laguntzarekin. Hortaz, irakasleek hizkuntza aberatsa eta egokia erabili behar dute, izan ere, ikasleen hizkuntza gaitasuna, curriculumeko hizkuntza guztietan, entzuten duten hizkuntzaren kalitatearen eta lehenbiziko saioetatik jasotzen duten laguntzaren mende dago. Ezin ahaz daiteke Haur Hezkuntzako ikasle batzuentzat ikastetxea dela hizkuntza eredu konplexuekin eta hizkuntza formal eta jasoa-rekin kontaktua izateko toki bakarra.

Halaber, ez ditugu ahaztu behar eskolaldiaren hasieran aurkitzen ditugun komunikazio egoera desberdinak: ama-hizkuntzat eskolako hizkuntza duten ikasleak eta ama-hizkuntza ez den beste batean (gaztelaniaz nahiz euskaraz) hasten direnak. Bestalde, ikasle atzerritarrek ez dute beren ama-hizkuntza eskolako hizkuntza testuinguruetan identifikatzeko aukerarik izanen.

Nafarroako curriculumek gauza berri bat dute, alegia, eskolako hizkuntza guztien tratamendu integrala. Hona hemen haren funtsa: hizkuntza bakoitzak kode desberdina eta berariazkoa badu ere, komunikatzeko gaitasuna gaitasun konplexua da, hizkuntza desberdinak ikastearen ondorioa. Hau da, ikasteko prozesu bakar bat dago, nahiz eta hizkuntza batzuen kodeak egon, eta horren ondorioz, estrategia berezi batzuk behar dira hizkuntzaren eta metodologiaren aldetik, ikasleek hizkuntza bakoitzean duen gaitasunaren, hura ikasteko denboraren eta dauden baliabideen arabera. Curriculum integratu batek bidea ematen du ikasketa osagarriak izan, hizkuntza bakoitzaren berariazko ezaugarri linguistikoak modu koordinatuan landu eta hizkuntza batean ikasitakoa besteetara transferitu, aplikatu eta zabaltzeko.

Haur Hezkuntzaren bigarren zikloko ikasleei irakurtzearen eta idaztearen erabilerak ikasi eta aztertzeke eskatzen zaie; beste asmo bat da jarduera horietarako interesa piztu eta finkatzea. Irakurri eta idazteko jarduerak ikasgelan modu funtzionalean eta esanguratsuan erabiliz gero, behar den hezkuntzako esku-hartzearekin batera, testu idatziaren ezaugarrietako batzuk ezagutzen hasiko dira, bai eta haien ezaugarri arruntak ere, horiek Lehen Hezkuntzako lehen zikloan osatuko baititu.

Halaber, beharrezkoa da beren eta besteen hizkuntzekiko jarrera positiboak garatu eta bestelako hizkuntzak ikasteko sentsibilitatea eta jakin-mina piztea. Atzerriko hizkuntza bat ikasten hasterakoan, jakin-min hori baloratuko da, bai eta komunikazio testuinguru ezagunetan, batez ere ikasgelako ohiko eginkizunetan mezuek dituzten esanahietara pixkanaka hurbiltzeko joera.

Bestalde, beharrezkoa da testu ulergarri eta errazen bitartez haur literaturara hurbiltzea, literatura hastea gozatu, dibertitu eta jolasteko bidea izan dadin.

Ikus-entzunezkoen eta informazioaren eta komunikazioaren hizkuntzak ere haurren bizitzaren parte dira, eta horiek hezkuntzaren aldetik landu beharra dago; horretarako, erabileratik abiatuta, ikus-entzunezko mezuen ulermena eta erabilera egokia landuko dira.

Arte hizkuntzan hizkuntza plastikoa eta musikala sartzen dira. Hizkuntza plastikoaren hezkuntza-ikuspuntuak barne hartzen ditu materialak, testurak, objektuak eta tresnak manipulatu eta plastika-produkzioetara hurbiltzea, abilezia eta trebetasun berriak hartu eta sentsibiltate estetiko eta sormena bultzatzeko.

Musika hizkuntzak errealitatea irudikatu eta komunikatzea ahalbidetzen digu, soinuak denboran erabiltzearen bidez. Asmoa da adierazi eta irudikatzeko bide horretaz baliatzeko gaitasuna pixkanaka handitzea, hezkuntzako helburu orokorretan erabiltzeko.

Gorputz hizkuntza gorputzaren erabilerari loturik dago, hala nola komunikatu eta irudikatzeko asmoa duten keinuei, jarrerari eta mugimenduari. Interes berezia du joko sinbolikoa eta adierazpen dramatikoaren afektibitatea adierazi eta munduaren ezagutzaren berri emateko modutzat hartzeak.

Gaitasun artistikoak garatzen ere laguntzen dute hizkuntzek, eta horrekin batera kontzientzia kritikoa sustatzen dute, esperientzia estetikoak besteekin partekatzearen ondorioz.

Modu osagarri batez, hizkuntzek ikasleen garapen integratua sustatzen dute, eta beste bi arloen edukiekin batera lantzen dira. Hizkuntzen bitartez, irudimena eta sormena lantzen dituzte, beren identitate pertsonala osatzen dute, beren emozioak, munduaz duten ezagutza eta errealitateaz duten pertzepzioa adierazten dute. Gainera, harremanetan sartu, erregulatu, komunikatu eta trukatzeko baliabideak izateaz gain, emozioak adierazi eta kudeatzeko eta errealitatea irudikatzeko tresnarik hoberenak dira. Kultur produktuak diren aldetik, funtsezko baliabideak dira norberaren kultur identitatea eratu eta bestelako talde sozialena estimatzen ikasteko.

## Helburuak

Arlo honetan, hezkuntzako esku-hartzeak ondoko gaitasun hauek garatzeko helburua izanen du:

1. Hizkuntza erabiltzea ikasi, irudikatu, komunikatu, gozatu eta ideiak eta sentimenduak adierazteko; ahozko hizkuntza besteekin harremanetan egon eta bizikidetzara erregulatzeko bide gisara baloratzea.
2. Sentimenduak, nahiak eta ideiak adieraztea bai ahozko hizkuntzaren bidez, bai bestelako hizkuntzen bidez, eta beren asmora eta egoerara hobekien egokitzen dena aukeratzea.
3. Beste haurren eta helduen mezuak ulertu eta hizkuntzekiko jarrera positiboa izatea.
4. Literaturako testu batzuk ulertu, errepikatu eta sortzea, eta haiekiko estimuko, gozameneko eta intereseko jarrerak garatzea.
5. Irakurri eta idaztearen erabilera sozialak ulertzen hasi, haien funtzionamendua aztertu eta komunikatu, informatu eta gozatzeko tresna gisa baloratzea.
6. Hizkuntza desberdinetan azaldutako arte lanak ezagutzen hasi eta teknika batzuk erabiliz irudikapen eta adierazpen artistikoko jarduerak egitea.
7. Curriculumeko beste hizkuntzak ahoz erabiltzen hastea ikasgelan komunikatzeko, eta komunikazio trukatzeko horietan parte hartzeko interesa eta atsegina izatea.

## Edukiak

(Izartxo\* batekin markatutako edukiak zailagoak dira, eta, hortaz, 1. hizkuntzari baizik ez zaizkio aplikatuko).

### 1. multzoa. *Hitzezko hizkuntza.*

#### 1.1. Entzun, mintzatu eta solas egitea

- Eskolan eta gizartean erabiltzen diren ahozko testuen ideia orokorra ulertzea.
- Curriculumeko beste hizkuntzen ahozko testuen ideia orokorra ulertzea, ikasgelako egunero-egoeretan eta gai ezagun eta arrunteei buruz hitz egiten denean:
  - Arretaz entzutea.
  - Curriculumeko hizkuntzetako adierazpenak eta formulak identifikatu eta haiei erantzun egokia ematea: agurrak, eskaerak, esker ona, gustuko eta lehentasuneko adierazpenak, galderak...
  - Jarraibideak, azalpenak eta kontakizunak ulertu eta eskatzen zaionaren aurrean erantzun egokia ematea (identifikatzea, seinalatzea, jardutea...).
  - Ipuinak modu orokorrean ulertzea. Ulertzen duela modu batzuetan adieraztea, adibidez:
    - Une bakoitzean parte hartzen duen pertsonaiaren marrazkia seinalatzea.
    - Berriz kontatzen direnean akats edo aldaketa nabariak antzematea.
    - Personaia batek esan behar duen esaldia aurrez esan edo gogoratzea.
    - Ipuinaren gaia zein den esatea (ideia nagusia, irakaskuntza...).
    - Pertsonaia bat deskribatzea.
    - Istorioaren bukatu gabeko esaldiak osatzea.
  - Ipuin, poema nahiz kanta labur bateko pertsonaiak identifikatzea. Ahozko kontakizun erraz bateko eszenen segida ezartzea.
  - Ipuin bat kontatzen zaien bitartean emozioak adieraztea (ustekabea, beldurra, poza...).
  - Ipuineko tituluak marrazkiei eta pertsonaiei lotzea.
- Komunikazioko ohiko egoeretan aktiboki parte hartu eta entzutea. Bere enuntziatuak formatu konbentzionaletara gero eta gehiago egokitu eta ikus-entzunezko baliabideen bitartez sortutako ahozko mezuak, testuak eta kontakizunak ulertzen hastea.
- Hizkuntza bidezko trukaketa erregulatzen duten arauak egoki erabili, hitz egiteko txanda errespetatu eta arretaz eta errespetuz entzutea:
  - Solasaldi batean parte hartzea, galdetuz eta entzunez.
  - Ohar egokiak egitea.

- Ahozko hizkuntza gero eta gehiago erabiltzea gertaerak gogoratu eta kontatu, jakintza arloak aztertu, ideiak eta sentimenduak adierazi eta bere eta besteen jokabidea erregulatzeko:
  - Ikasleentzako gertaera garrantzitsu baten berri ematea, iraganeko adizkiak erabiliz. Jakin behar du zer gertatu zen –gertaeren denborazko sekuentzia– non gertatu zen eta berarentzat zergatik den garrantzitsua.
  - Gertatu zaion zerbaiten berri ematea lehenbiziko pertsonan, ekintza espazioan eta denboran ongi kokatuz. Beste batek kontatu duenaren berri ematea.
  - Objektu bat deskribatu eta haren deskribapenari esker identifikatzea. Ikusten diren objektuak erkatzea.
  - Zerbait edo norbait non dagoen azaltzea. Toki batera nola joan azaltzea.
  - Jarraibideak, aginduak eta aholkuak ematea.
- Ahozko hizkuntza nola funtzionatzen duen pixkanaka ikasi eta haren alderdi fonikoei eta lexikoei buruzko interesa izatea:
  - Soinuak ezagutu eta identifikatzea. Kontsonanteak eta bokalak.
  - Galderak, baieztapenak eta ezeztapenak bereiztea. Enfasia eta adierazkortasuna nola eta noiz ematen diren jakitea.
  - Enuntziatu egiazkoak, gezurrezkoak edo gehiegizkoak bereiztea.
  - Soinu errepikapenak, errimak, aho korapiloak etab.
  - Bestelako hizkuntzak daudela jakitea, hala nola denak desberdinak direla soinuen, hitzen eta abarren aldetik. Denek komunikatzeko balio dutela jakitea.
- Hizkuntzei buruzko jarrera positiboa izatea.
- Adinaren araberrako lexiko egokia, zehatza eta aberatsa eta gramatika egitura egokiak erabili eta doinu egokia eta ahoskera garbia izatea.
- Curriculumeko beste hizkuntzetako elkarrizketetan parte hartzeko interesa izatea, ohiko jardueretan eta komunikazioko egoera arruntetan:
  - Curriculemeko beste hizkuntzen sistema fonetikoak ezagutu eta pixkanaka barneratzea. Hori imitatzea.
  - Jorratzen diren gaien eta egoeretako hitzak eta esapideak ezagutzea.
  - Ikasgelan, jokoetan, azalpenetan eta abarretan agertzen diren egoeretan moldatzea.
  - Aabilezia eta prozedura batzuk erabiltzea: errepikatzea, buruz ikastea, hitzak eta esapideak keinuzko eta ikusizko elementuekin lotzea, hizkuntzaren lexikoa, formak eta egiturak ikasteko ereduak ikusi eta imitatzea.

## 1.2. Hizkuntza idatziaren hastapenak

- Hizkuntza idatziari hurbiltzea komunikatu, informatu eta gozatzeko bidea den aldetik. Haren elementu batzuk aztertzekeo interesa.

- Forma idatziak eta adierazpen grafikoko bestelako formak bereiztea. Idatzizko hitz eta esaldi arrunt eta adierazgarriak identifikatzea. Haien arteko berdintasunez eta desberdintasunez ohartzea. Hitz eta esaldi horien bidez idazteko kodea ezagutzen hastea:
  - Objektuen izena dagokien argazkiari nahiz marrazkiari lotzea, bai eta sinbolo grafikoak edo zeinuak haien esanahiei ere.
  - Soinu jakin batez hasten diren hitzak, edo... z bukatzen direnak nahiz... soinua dutenak identifikatzea.
- Idatzizko hizkuntzaren euskarriak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea (liburuak, aldizkariak, egunkariak, kartelak edo etiketak). Horiek ematen duten informazioa gero eta ego-kiago erabiltzea.
- Beste pertsona batzuek irakurtzen dituzten kontakizunak, azalpenak, jarraibideak edo deskribapenak arretaz eta interesaturik entzutea:
  - Testu baten edukia igartzea izenburutik, irudietatik eta ezagutzen dituen hitz batzuetatik abiatutik.
  - Izenburu batzuen artetik, testuaren edukira hobekien egokitzen dena aukeratzea ipuinetan, albisteetan, errezetetan, kantetan, poemetan eta abarretan.
  - Gonbit bat identifikatzea (nork, noiz, non eta zergatik gonbidatzen duen).
- Idazmena benetako helburuak betetzeko erabiltzea. Idatzizko hizkuntzaren sistemaren konbentzio batzuk erabiltzeko interesa eta prestasuna (linealtasuna, orientazioa eta espazioaren antolaketa), eta mezuak idazteko gero eta letra zehatzagoa eta argiagoa erabiltzeko gustua izatea:
  - Zenbakiak, letrak eta bestelako zeinuak bereiztea.
  - Letra berberak hitz desberdinetan identifikatzea.
  - Letrak imitatuz grafismoak egitea, ezkerretik eskuinera eta goitik behera.
  - Bere izena eta ikaskideena helburu batzuekin idaztea, adibidez: bere lanak eta gauzak identifikatzeko, eginkizun batzuetan parte hartu duela erregistratzeko, liburutegiko liburuak maileguan eskatzeko, etab.
  - Irakasleari testuak diktatzea, horrek idatz ditzan.
- Idatzizko testua egituratzen duten oinarrizko elementuak aipatzeko berariazko hitzak erabiltzea (izenburua, azala, irudia, hitza, letra...).

### 1.3. Literaturaren hastapenak

- Ipuinak, kontakizunak, elezaharrak, poesiak, errimak edo asmakizunak, bai tradiziozkoak, bai gaur egunekoak, entzun eta ulertzea, atsegin hartu eta ikasteko bide gisara.
  - Erritmoa eta errima atzematea poesia bat entzutean:

- Haurrentzako antzerki-lan batean parte hartzen duten protagonista eta bigarren mailako pertsonaiak (bizidunak nahiz bizigabeak) identifikatzea.
- Kantetarako, poemetarako eta abarretarako beste izenburu batzuk asmatzea.
- Irakasleak irakurritako zati esanguratsu bat zein ipuinetakoa den identifikatzea.
- Irakurri dioten testu bati buruzko iritzia ematea: gustatu zaion ala ez, aurretik zekien zerbaitekin lotzen duen...
- Poesiako testu batzuk, folklorekoak nahiz idazle batenak, errezipatzea, erritmoak, errimak eta hitzen edertasunak sortzen dituzten sentsazioekin gozatuz:
  - Poesia bat, kanta bat eta abar buruz ikasi, errezipatu eta antzeztea, erritmo eta doinu egokiak eta gorputzaren hizkuntza erabiliz, bakarka nahiz taldeka.
  - Bakarka, aho korapiloak errezipatzea, erritmo, doinu eta fonetika egokiek.
- Dibertitu eta ikasteko hizkuntza jokoetan era sortzailean parte hartzea:
  - Bakarka edo taldeka, biko errimak sortzea, eredu bati jarraikiz eta doinu eta erritmo egokiak erabiliz.
  - Asmakizun bat asmatzea, binaka nahiz bakarka, horretarako ereduak eta laguntza emanaz.
  - Txisteak eta umorezko zentzugabekeriak.
  - Ahopeka, azkar, mantso... hitz egin edo errezipatzea. Adierazkortasuneko jokoak, erritmora egokitzea.
- Literatur testuak dramatizatu eta hizkuntzaz kanpoko baliabideen bitartez adierazteko interesa eta gustua izatea:
  - Haurrentzako antzerki lan nahiz poema dramatizatu batean parte hartzen duten pertsonaie-tako bat (biziduna nahiz bizigabea) antzeztea.
- Literatur produkzioek sortutako interpretazioak, sentsazioak eta emozioak partekatzeko inte-resa izatea.
- Liburutegia errespetuz eta kontuz erabili eta liburutegia baloratzea, denbora pasatu eta go-zatzeko baliabide informatiboa den aldetik.

## 2. multzoa. *Ikus-entzunezkoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien hizkuntza*

- Ordenagailua, kamera, soinuaren eta irudien erreproduzitaileak eta bestelako baliabide tek-nologikoak erabiltzen hastea.
- Filmak, marrazki bizidunak, bideo-jokoak eta antzeko ikus-entzunezko produkzioak ikusten hastea. Haien edukiak eta estetika kritikoki baloratzea.
- Errealitatea eta haren ikus-entzunezko errepresentazioa pixkanaka bereiztea.
- Ikus-entzunezkoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak neurritz erabiltzeko beharraz ohartzea.

### 3. multzoa. *Arte hizkuntza*

- Plastika-hizkuntzaren osagai batzuk esperimentatu eta aztertzea (linea, forma, kolorea, testura, espazioa...).
- Gertaerak, sentimenduak, emozioak, bizipenak edo ametsak adierazi eta komunikatzea marrazkien eta material eta teknika desberdinekin egindako produkzio plastikoen bitartez.
- Inguruko obra plastikoak interpretatu eta gero eta egokiago baloratzea.
- Ahotsaren, gorputzaren, eguneroko objektuen eta musika tresnen soinu-ahalbideak ezagutzeta. Soinuak musika jo eta sortzeko erabiltzea.
- Ingurune natural eta sozialeko soinuak ezagutu eta haien ezaugarriak eta oinarrizko kontraste batzuk (luzea-laburra, ozena-leuna, akutua-apala) bereiztea.
- Inguruneko musika obrak modu aktiboan entzutea. Kantak interpretatu, musika-jokoetan aritu eta dantzatzeko jardueretan modu aktiboan parte hartu eta gozatzea.

### 4. multzoa. *Gorputzaren hizkuntza*

- Keinuak eta mugimenduak esperimentatu eta adierazi eta komunikatzeko baliabideak direla ikastea.
- Beren gorputzak espazioan eta denboran mugituz dituzten ahalbideak komunikatu eta adierazteko erabiltzea.
- Pertsonaiak, gertaerak eta egoerak naturalki aditzera ematea bakarkako nahiz taldekako joko sinbolikoetan.
- Dramatizazio jardueretan, dantzetan, joko sinbolikoetan eta gorputz adierazpeneko bestelako jokoetan parte hartzea.

## Ebaluazio irizpideak

### 1.L1. Ahozko hizkuntza beren adinekoekin eta helduekin harreman positiboak izateko modurik egokienean erabiltzea, komunikazio asmoen arabera, ahozko mezu desberdinak ulertu eta entzuteko arretazko eta errespetuzko jarrera izatea.

Irizpide honen bidez komunikazio asmo desberdinak (laguntza eskatu, gertaera baten berri eman, jarraibide errazak eman, solasaldietan parte hartu) betetzeko ahozko hizkuntza garbia eta egokia erabiltzeko gaitasunaren garapena ebaluatzen da. Ahozko hizkuntza beren portaera erregulatu, bizipenak kontatu, arrazoitu, gatazkak konpondu eta bere gogo aldartea komunikatu eta besteekin partekatzeko modu egokian eta kreatiboan erabiltzeko interesa eta gustua baloratuko da. Halaber, irizpide hau ikasgelan parte hartzeko bidea ematen dien mezuak, kontakizunak, literatur lanak, deskribapenak, azalpenak eta informazioak entzun eta ulertzeko gaitasunari buruzkoa da.

Besteekiko errespetua horiek esaten dutenarekiko interesaren eta arretaren bitartez adierazten da, hala nola konbentzio sozialak erabiliz (hitz egiteko txanda, entzutea, solaskideari begiratzea, gaiari lotzea) eta desberdintasunak onartuz.

**1.12. Ahozko hizkuntza beren adinekoekin eta helduekin harreman positiboak izateko modurik egokienean erabiltzea, komunikazio asmoen arabera, ahozko mezu desberdinak ulertu eta entzuteko arretazko eta errespetuzko jarrera izatea.**

Irizpide honen bidez curriculumeko beste hizkuntzetan lortu duten mailaren araberako komunikazio asmo desberdinak (laguntza eskatu, esker ona adierazi, agurtu, jarraibide errazak eman, galdetu eta erantzun) betetzeko ahoz komunikatzeko gaitasunaren garapena ebaluatzen da. Ikasitako formulak egoki erabili eta ikasgelako jardueretan (azalpenetan, jokoetan, antzezpenetan, eta abarretan) parte hartzeko interesa eta gustua baloratuko dira. Halaber, irizpide hau ikasgelan parte hartzeko bidea ematen dien mezuak, kontakizunak, kantak eta poemak, deskribapenak eta azalpenak entzun eta ulertzeko gaitasunari buruzkoa da.

Besteekiko errespetua horiek esaten dutenarekiko interesaren eta arretaren bitartez adierazten da, hala nola konbentzio sozialak erabiliz (hitz egiteko txanda, entzutea, solaskideari begiratzea, gaiari lotzea) eta desberdintasunak onartuz.

**2. Ikasgelako eta inguru hurbileko testu idatziekiko interesa izan eta haiek erabiltzen, haien asmoak ulertzen eta idatzizko kodearen ezaugarri batzuk ezagutzen hastea. Ikasgelan irakurri eta idazteko jardueretan interesa izan eta haietan parte hartzea.**

Irizpide honekin ikasleek idatzizko hizkuntza baloratzen ote duten ebaluatzen da, hala nola irakurtzea eta idaztea komunikatu, informatu eta gozatzeko baliabide gisara funtzionalki erabiltzen hasi ote diren. Interes hori ikasgelan egiten diren irakurketetan eta idazketetan duten arretaren eta jakin-minaren bidez frogatuko dute. Idatzizko materiala (liburuak, egunkariak, eskutitzak, etiketak, publizitatea eta abar) egoki erabiltzen duten ikusiko da. Idatzizko kodearen oinarrizko mekanismoak aztertu eta idatzizko hizkuntzaren ezaugarri eta konbentzio batzuk ikasteko interesa baloratuko da, ezagutza horiek Lehen Hezkuntzan finkatuko baitira.

**3. Arte eta ikus-entzunezkoen hizkuntzen baliabideak, materialak eta teknikak erabiliz adierazi eta komunikatu, haien ahalbideak aztertu, beren produkzioekin gozatu eta beren esperientzia komunikatibo eta estetikoak besteekin partekatzeko interesa izatea.**

Irizpide honen bidez musikaren, ikus-entzunezkoen, plastikaren eta gorputzaren hizkuntzen material, baliabide eta teknikak erabiliz adierazteko gaitasunaren garapena ebaluatzen da.

Keinuen, mugimenduen, ahotsaren, koloreen, testuraren eta soinuen adierazpen ahalbidea esperientzatu eta saiatzeko gustua ebaluatuko da.

Sentsibiltate estetikoaren eta baliabide desberdinekin egindako arte lanekiko jarrera positiboen garapena baloratuko da, hala nola esperientzia estetikoak partekatzeko interesa.